

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Laparra lehendakariordeak Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Sariak eman ditu

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea (ADEMNA) saritu dira beren lanagatik

Ostirala, 2017.eko abenduak 15

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak "Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen X. Sariak" eman ditu gaur Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan.

Aurtengoan, "Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Arreta" kategorian, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea saritu da, eta "Banakako arreta-planen kudeaketa-metodologia" kategoriako saria Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteari (ADEMNA) eman zaio.



lehenengo ilaran, ezkerretik eskuinera: Miguel Echarri, Recari fundaziokoa; Jokin Apezetxea, Bortzirietako Mankomunitatekoa; María Eugenia Campo; Miguel Laparra; M^a del Mar Sánchez; eta Asunción Azanza, ADEMNAkoa

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak helburu honekin antolatzen ditu Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitatearen Sariak: kalitatea hobetzea eta Nafarroako gizarte-zerbitzuetako erakundeek erabiltzaileen arretari eta langileen enpleguaren kalitateari eta/edo erakundeen kudeaketa hobetzeari dagokienez egiten dituzten jardunbide egokiak saritzea.

Sari hori "Tomás y Lydia Recari García" fundazioarekin lankidetzan ematen da.

Sariak emateko ekitaldian, Miguel Laparra lehendakariordeak azpimarratu du zeinen garrantzitsua den erakundeen artean lankidetzan jarraitzea: "inoiz baino balio handiagoa daukate erakundeen arteko lankidetzak edo sinergieak, gizarteko pertsona eta kolektibo zaurgarrienen egoerarekin konprometituta dagoen gizarte sentikor bat aktiboki eraikitzen jarraitzeko".

Horrez gain, Laparrak eskerrak eman dizkio Recari fundazioari, eta, bereziki, Miguel Echarri "eskuzabalki parte hartzeagatik".

Sarituak

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak "Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Arreta" modalitateko saria jaso du, MEC

proiektuan egindako lan onagatik.

Proiektu horren helburua da desgaitasuna dutenei lehenengo aukera ematea zenbait lan-trebezia eta -gaitasunetan lan egiteko, etorkizunean errazago aurkitu dezaten lana; gainera, haien garapena eta autonomia ere garatzen dira. Horretarako, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak erakunde publiko eta pribatuen arteko sare bat sortu du, kolektibo horrentzako lan-eskaintzak sustatzeko. Mankomunitateari saria ematean, kontseilariorde Miguel Laparrak nabarmendu du zenbaterainoko autonomia eta gaitasuna duten toki-erakundeek Nafarroako Gobernuko Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroa aberasteko eta osatzeko baliabideak sustatzeko.

Mankomunitatearen izenean, proiektu sarituaren arduradun Jokin Apezetxeak jaso du saria, eta programari MEC izena ematen dion pertsona aurkeztu du, María Eugenia Campo, desgaitasuna duen gazte baten ama. Hark bere semearentzat udako lan bat aurkitzea lortu du proiektu horri esker, non erakunde publikoek eta pribatuek hartu baitute parte. María Eugenia Campok eskerrak eman dizkie Mankomunitateko teknikariei, Aspace eta Caixabank erakundeei eta bere herriko bizilagunei "egunero ematen diguten laguntzagatik".

"Langileen enpleguaren kalitatea eta erakundeen kudeaketa hobetzea" modalitateko saria Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteari (ADEMNA) eman zaio, "Banakako Arreta Planen kudeaketa-metodologia" jardunbide egokiagatik. ADEMNAk SCRUM kudeaketa-metodologiara egokitu ditu Banakako Arreta Planak (BAP); sistema hori sektore industrialean erabiltzen da, eta, sistema bisualen bidez, programak garatzeko plangintza eta bizkortasuna optimizatzen ditu.

Sistema hori aplikatzeari esker, hobetu egin da talde-ikuspegia, berrikuspenak areagotu egin dira, ezohiko BAPak egin dira aldaketa-egoeretan, helburuak denbora gutxiagoan bete dira, eta erabiltzaileek gehiago hartu dute parte.

ADEMNAko lehendakariorde M^a del Mar Sánchezek eskerrak eman ditu sariagatik eta elkartean gaixoei arreta ematen dieten profesionalen lanagatik, egunero egiten baitute borroka ahalik eta bizi-baldintza onenei eusteko.

Galería de fotos



Laparra, ADEMNAko sarituekin, eta Miguel Echarri, Recari fundaziokoa



Laparra, ADEMNAko sarituekin, eta Miguel Echarri, Recari fundaziokoa